



“ETArri ‘kantxa’ baino ‘kontrakantxa’ ematen saiatu naiz”

Juan Carlos Etxeberria

Degradatua izanagatik ere, ETBko albistegietako aurpeirik ezagunenetakoa oraindik.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Teleberri aurkeztetik oinezko erredaktore izatera. Zein izan zen delitua?

Erantzunik gabeko galdera batzuk izan nituen. Zalantza gehiegi egunero Teleberriren aurpegia izateko.

Kriptiko xamar geratu zaizu.

Aurkezle postua neure borondatez utzi eta handik gutxira kategoria handiko bi editoreren kargugabetzea gertatu zen. Orduan jakin nuen erabaki zuzena hartu nuela. Publikoki ez, baina barruan esan nituen esan beharrekoak.

Telebistatik politikarako saltoa ez dela hain handia, alegia, Uxue Barkos eta Aintzane Ezenarrok erakusten dutenez.

Eta pixka bat zabaldua, Martin Garitano edota Luis Herrero ahantzi gabe. Baina ez gaizki ulertu, oso zilegi iruditzen zait kazetaritatzatik politikara pasatzea.

Ez da, momentuz, zeure kasua.

Aipatu ditugun horietako batzuei esana diet, errespetu osoz, ispiluaren beste aldera pasa direla. Errealitatea desitxuratzen bada kazetaria baino lotsagabeagorik: politikaria. Eta niretzat kazetaritza bokazioa da.

Metro Bilbao Julio Ibarrentzat eta BBK Joseba Iriondorentzat bezala?

ETBk bi profesional bikain galdu zituen horiek alde egin zutenean. Nomina polita akaso, baina ez dakit komunikazio lan horretan moldatuko nintzatekeen.

Arrazoi duzu, ETArekin bonbaren bat gorabehera, lasaia duzue jarduna ETBn.

Horrelakoak –eta okerragoak– betiko bukatu direla jakiteak ematen didan poza adierazten asmatuko banu...

Baina zuek ez al zenioten ETArri soka ematen?

Bola ematen genion guk ETArri. Hori esan zuten behintzat hiru hilabete geroago egun hartan bostekoa ematera etorri zen batek. Eta hori ere ez zait ahaztuko. ETArri *kantxa* baino *kontrakantxa* ematen saiatu naiz ni.

Baina kazetaritzaren funtsa da: zuk edozer esan, jendeak irentsi egiten du eta.

Egin galdera Acebes, Michavila eta Aznarri 2004ko hauteskundeetan harira. Jendeak nahiko itsututa ikusten du telebista, baina muga bat dago. Informazio egiazkoa eta zuzena eman behar da, konfiantza galtzea irabaztea baino askoz errazago delako.

Konfiantza irabaztea edo galtzea, zer da Lady Diren hileta edo Urdangarinen ezkontza zuzenean ematea?

E, Lady Direna erretransmisio bikaina izan zen. Eta Urdangarinena ere bai; gauzak dau den bezala baietz kristoren audientzia eman!

Ez da izango dena audientzia ETBn?

Ez, noski. Zorionez, gaizki egin dako oinarrizko gauza batzuk azkeneko hilabeteetan zuzentzeko bidean daudela ematen du. Bada garaia. ■

